**TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2017KO URRIAREN 3AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2017ko urriaren 3ko 09:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ esanetara (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute, Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendik , (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), Yon Collar Riosecok eta Nagore Basurto Escamillak (Errenteria IrabaziZ)

Bertan dago, Egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin idazkaria.

**1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 19an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkariak Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 19an egindako ohiko bilkurari dagokion akta berri eman ondoren.

Inolako aldaketarik egin gabe onartu dute.

**2. 2016-2019 urtealdirako Errenteriako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 3 DE OCTUBRE DE 2017**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:00 horas del día 3 de octubre de 2017, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de Julen MENDOZA PEREZ (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

No asisten excusando su inasistencia, Garazi Lopez de Echezarreta Auzmedi (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), Yon Collar Rioseco y Nagore Basurto Escamilla (Errenteria IrabaziZ).

Asiste y da fe del Acto la Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 19 de septiembre de 2017.**

Leída por la Secretaria General el Acta correspondientes a la Sesión Ordinaria de fecha 19 de septiembre de 2017.

Se aprueba sin observación alguna

**2. Propuesta de Modificación del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria:**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**proposamena (6. aldaketa)**

Udal Hizkuntza Política sailetatik aurkeztu da Errenteriako Udaleko eta bere organismo autonomoetako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2016-2019 urtealditarako) aldatzeko proposamena, dirulaguntza lerro berria barneratzeko xedearekin.

Aztertu da kontu-hartzaileak 2017ko irailaren 26an egindako txostena.

Ogasun eta Garapen Ekonomikoko Zinegotzi Delegatuaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

**Onartzea** 2016-2019. urtealdiko Errenteriako Udaleko eta bere organismo autonomoetako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa (6. aldaketa), eta hurrengo lerroa barneratzea, Udal Hizkuntza Politikako sailari dagokiona, eta eransten den proposamenean jasotako edukiarekin.

**periodo 2016-2019 (Modificación nº6)**

Desde el área de Politica Linguística Municipal se ha presentado propuesta de modificación del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria y sus organismos autónomos: periodo 2016-2019, al objeto de incluir una nueva línea de subvención.

Visto el informe emitido por la Interventora municipal con fecha 26 de septiembre de 2017.

A propuesta del Concejal Delegado del Area de Hacienda y Desarrollo Economico.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**A C U E R D A**

**Aprobar** la Modificación propuesta del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria y sus organismos autónomos: período 2016-2019 (modificación nº6), e incluir la nueva línea o programa de subvención, correspondientes al área de Política Lingüística Municipal, con el contenido recogido en la propuesta que se adjunta.

**3. Errenteriako 19 zenbakidun auto-taxi lizentzia eskualdatzeko baimena ematea**

Udalbatzak 1984ko irailaren 26an eginiko bilkuran 19 zk.ko Auto-taxiaren udal lizentzia ustiatzeko baimena eman zion **ANÍBAL JOSÉ GONÇALVES** jaunari.

**3. Autorización de la transmisión de la licencia de auto-taxi nº 19 de Errenteria**

Por acuerdo plenario de fecha 26 de septiembre de 1984, se concedió a D. **ANÍBAL JOSÉ GONÇALVES,** autorización para la explotación de la licencia municipal de Auto-Taxi n° 19.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2017ko abuztuaren 7an, ANÍBAL JOSÉ GONÇALVES jaunak eskatu zuen aipatutako 19 zenbakidun Auto-Taxi lizentzia MARIO ANTONIO LOPES MACEDO jaunari eskualdatzeko baimena.

Con fecha 7 de agosto de 2017, D. ANÍBAL JOSÉ GONÇALVES, solicita la transmisión de la citada licencia de Auto-Taxi nº 19 a favor de D. MARIO ANTONIO LOPES MACEDO

**LEGE OINARRIAK**

- Errenteriako Auto-Taxi Zerbitzuaren udal-ordenantza 2013ko uztailaren 18an onartua

- 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena.

- 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua onartzen duena.

**LEGISLACION APLICABLE**

- Ordenanza Municipal del servicio de Auto-Taxi de Errenteria aprobada el 18 de julio de 2013.

- Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.

- Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo

Taxi lizentzia 19 zenbakidunaren egun titularra denak eta baita titular berria izango denak ere agirien bitartez zihurtatu dute transmisioa burutu ahal izateko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituztela. Erosleak xedapenetan ezartzen diren baldintzak bete dituela egiaztatu beharko du eskualdatze Erabakia jakinarazten zaion hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epean eskualdatzearen eraginkortasuna baldintza horiek betetzearen menpe gelditzen delarik.

Tanto el titular actual como la persona propuesta para ser el nuevo titular de la Licencia nº 19, han acreditado documentalmente el cumplimiento de parte de los requisitos establecidos en la legislación vigente para autorizar la transmisión de dicha licencia. El adquiriente deberá acreditar los requisitos establecidos en la parte dispositiva en el plazo de 15 días a partir de la notificación del Acuerdo de transmisión, quedando la eficacia de dicha transmisión condicionada al cumplimiento de dichos requisitos.

Mario Antonio Lopes Macedo jaunak, deitua izan denerako froga gainditu ondoren udal gidari baimena lortu du 2017ko irailaren 14an.

D. Mario Antonio Lopes Macedo habiendo sido convocado a la prueba correspondiente, ha obtenido el permiso municipal de conductor con fecha 14 de septiembre de 2017

Udaltzaingoko Ofizialburuak honi buruzko txostena egin du 2017ko irailaren 14an.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe al respecto con fecha 14 de sepbiembre de 2017.

Udal Aholkulari Juridikoak 2017ko irailaren 19an bere oniritzia eman du.

Aipatutako Ordenantzan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzarraren eskumena da ondoko akordioa hartzea

Trafiko eta Garraio Ziinegotzi Delegatuaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak,

**E R A B A K I D U**

1.- Baimena ematea 19 zk.-ko Auto-Taxi (A maila) Udal lizentzia eskuz aldatzeko **MARIO ANTONIO LOPES MACEDO,** jaunaren alde **NAN X-0581134-Q** zenbakiduna, egungo titularra **ANIBAL JOSE GONÇALVES** NAN **X-0356422-Z** zenbakidun jauna izanik, **baldintzatuta lehenak erabaki honen jakinarazpena jaso eta HAMABOST EGUNEKO gehieneko epean, aurkeztu ditzan honako agiri hauek, beti ere horrla ez bada baimen hau eraginik gabe geratuko delarik:**

**- Jarduera hasi izanaren zentsu-aitorpenaren kopia (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako).**

**- Lizentzia emateko udal-tasak ordaindu izana egiaztatzen duen ordainagiria.**

**- Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian altan egotearen aitorpena.**

**- Lizentziari atxikita dagoen eta zerbitzua emateko erabiliko duen ibilgailuaren zirkulazioko baimena, eta lizentziari atxikitako**

El asesor jurídico municipal ha dado su visto bueno en fecha 19 de septiembre de 2017.

Considerando que la aprobación de este acuerdo es competencia de esta Junta de Gobierno Local, por así establecerlo la citada Ordenanza

A propuesta del Concejal Delegado de Tráfico y Transportes.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**A C U E R D A**

1.- Autorizar la transmisión de la Licencia Municipal de Autotaxi (Clase A) nº 19 cuyo titular es D. **ANIBAL JOSE GONÇALVES** con DNI nº **X-0356422-Z** en favor de D. **MARIO ANTONIO LOPES MACEDO** con DNI nº **X-0581134-Q, condicionada a que este último presente en el plazo máximo de QUINCE DIAS contado a partir de la notificación del presente acuerdo, la siguiente documentación y quedando automáticamente sin efecto en caso contrario:**

**- Copia de la declaración censal de comienzo de actividad a efectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre el valor añadido.**

**- Recibo acreditativo del pago de las tasas municipales por la concesión de la licencia.**

**- Declaración de alta en el régimen especial de trabajadoras y trabajadores autónomos de la Seguridad Social.**

**- Permiso de circulación del vehículo adscrito a la licencia y con el que va a prestar servicio, y documentación acreditativa de haber obtenido la**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**ibilgailua edo berri bat eskuratu izana egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere ibilgailu aldatzeko baldintzak betetzen baditu horrek.**

**- Ibilgailuen azterketa teknikoko txartela.**

**- Erantzukizun zibilaren gaineko aseguruaren poliza nahitaez egin behar duten motordun ibilgailuak erabiltzearen ondoriozko poliza, eta erantzukizun zibilaren gaineko poliza, egiten den garraioa dela-eta erabiltzaileei eragin dakiekeen kalte guztiak estaltzeko.**

Aldi berean, titular berriak idatziz adierazi beharko du ezagutzen dituela taxiari buruzko legearen, erregelamenduaren eta udal-ordenantzaren edukiak.

Lizentziaren titular berriak eskualdatzailearen prestazioak mantendu beharko ditu.

Lizentziaren titular berriak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten edo jakinarazitako hutsuneren bat ez badu horretarako emandako epean konpontzen, Auto-Taxiaren lizentziaren eskualdaketa eraginik gabe geratuko da.

2.- Lizentzia eskualdaketa hau hurrengo arauen menpe geratzen da, ekainaren 29ko 2/2000 Legea, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena, eta urriaren 15 eko 243/2002 Dekretua, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erreglamendua. Aldi berean, 2013ko ekainaren 18an onartutako Taxi Zerbitzuaren Udal

**disposición del vehículo amparado por la licencia hasta el momento, u otro nuevo, siempre y cuando cumpla los requisitos previstos para la sustitución de vehículos.**

**- Tarjeta de Inspección Técnica del vehículo.**

**- Póliza del seguro de responsabilidad civil derivada del uso y circulación de vehículos a motor de suscripción obligatoria, y póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra cuantos daños y perjuicios puedan causar a los usuarios o usuarias con ocasión del servicio de transporte que realicen.**

Al mismo tiempo, la nueva persona titular deberá manifestar por escrito que conoce el contenido de la Ley y del Reglamento del Taxi asi como de la Ordenanza Municipal.

La nueva persona titular de la licencia deberá mantener las prestaciones del transmitente.

Si el nuevo titular de licencia no aportara la documentación requerida o no subsanara alguna deficiencia comunicada en el plazo concedido al efecto, quedará sin efecto la transmisión de la licencia de Auto-Taxi.

2.- Esta transmisión de licencia queda sometida a lo dispuesto en la Ley 2/2000 de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y la Ordenanza Municipal del Servicio de Auto-Taxi aprobada el 18 de junio de 2013, y normativa vigente en la materia en cada



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Ordenantzari, eta momento bakoitzean arlo horretan indarrean degoen gainerako legeria.

momento

3.- Auto-taxi eta beste alokairuzko ibilgailuen lizentziak eta baimen administratiboak emateagatik tasa ezartzen duen Ordenantzak arautútakoaren arabera dagozkion udal zergak ordaindu beharko da.

3.- Se deberán abonar los correspondientes derechos municipales conforme a lo establecido en la Ordenanza Reguladora de la Tasa por otorgamiento de licencias y autorizaciones administrativas de Auto-taxis y demás vehículos de alquiler.

----------------

---------------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:15 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Lehendakariak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:15 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Presidente. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net